

ZARAUTZ / Neguko ordutegian zabalduko dute liburutegia astelehenetik aurrera

Datorren astelehenetik, irailak 10etik, neguko ordutegia izango du Sanz Enea liburutegiak. Ildo horretatik helduen Libururutegia goizez 9:00-14:00 bitartean egongo da irekita, eta arratsaldetan, berriz, 15:30-20:00 bitartean. Larunbatetan hiru orduz zabalduko dute, 10:00 - 13:00 bitartean.

Haur Liburutegia eta Fonoteka arratsaldez izango dira irekita, 16:00etatik 20:00etara.

Horrez gain, hilaren 24an egingo dute lehenbiziko literatur solasaldia. Uxue Alberdiren Aulki jokoa liburua izango dute hizpide parte-hartzaileek egun horretan, 18:30etik 20:00etara. Ohi bezala, Ane Mayozerk gidatuko du ekitaldia. Jakinarazi dutenez, dagoeneko prest dute maileguan eraman ahal izateko liburuaren hainbat ale eta baita datozen ekimenetako dossierra ere.